

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2306

315/2024 EBAZPENA, maiatzaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena, Daniel Villar Lavari jauna kargutik kentzen duena, hark eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Datuak Babesteko ordezkari gisa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 2ko 212/2020 Ebazpenaren bidez (ekainaren 19ko EHAA, 120. zk.), Daniel Villar Lavari jauna izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Datuak Babesteko ordezkariaren lanpostua betetzeko.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gaineko xedapenak aztertu eta gero, zuzendaritza nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Daniel Villar Lavari jauna, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Datuak Babesteko ordezkariaren lanpostutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko ekainaren 30eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.